

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2191

*AGINDUA, 2018ko martxoaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez 2018an Ingurune Digitalean euskara sustatu, garatu edo normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen baita eta deialdia egiten.*

Estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak administrazio publikoen diru-laguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen du.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren. Dekretu horren 14. artikulua Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari izendatu zizkion, besteak beste, hizkuntza-politikari eta euskararen sustapenari lotutako egitekoak.

Bestalde, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, honako zeregin hau ezarri zion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bere 13.2.h artikuluan (apirilaren 21eko EHAA, 76. zk.): azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera arautzekoa, eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe administrazioko beste organo batzuek horretarako berariaz izendatuta dituzten funtzioak.

Euskararen Aholku Batzordeak 2012ko uztailaren 18an onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekin-tza Plana. Plan hori, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak 2012ko uztailaren 24an onartu zuen eta Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n berretsi zuen. Euskara Sustatzeko Ekin-tza Planak, ingurune digitalerako etorkizunerako erronka era honetan zehazten du: «Kultura digitalaren garai hauetan, ahalegin bereziak bideratu behar dira sareko eduki eta aplikazioetara, ahalik eta esparru gehienetako eskaintza euskaraz izan dadin. Hizkuntza batek IKT alorrean etorkizuna izan nahi badu, oinarriko baliabideak eta tresnak behar ditu. Horiek euskaraz garatzeko eta eguneratuak izateko ekimen eraginkorrak bultzatuko dira».

Halaber, 2018ko urtarrilaren 31n, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2018-2020 epealdiko Plan Estrategikoa eta 2018ko urteko plana onartu zituen. Izaera programatikoa duen Plan Estrategikoa hau Sailaren politika antolatzekeo tresna da, diru-laguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan.

Ezarrita dauzkan zereginak betetze aldera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, oraingo agindu honen bitartez, Ingurune Digitalean euskara sustatu, garatu edo normalizatzeko 2018ko diru-laguntza deialdia arautzen du.

Ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Ingurune Digitalean euskara sustatu, garatu edo normalizatzeko diru-laguntzak arautzea eta deialdia egitea.

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen egitasmoak eta kopuruak.

1.– Deialdian, besteak beste, mota hauetako egitasmoak aurkeztu ahal izango dira:

– Interneterako euskarazko webgune edo beste formatu berritzaile batzuk (web serieak, web irratiak, podcast-ak, eta abar).

– Mugikorrerako euskarazko aplikazioak edo APPak (telefono adimentsuetan, tabletetan edo bestelako gailu mugikorretan exekutatzen diren aplikazioak, erabiltzaileari ataza bat burutzea ahalbidetzen diotenak. Banaketa-plataformen bidez eskuratzen dira).

Horretarako, bi multzo bereiziko dira: ID1 multzoa, egitasmo berrientzat; eta ID2 multzoa, lehen-dik abian dauden euskarazko egitasmoak eguneratzeko (edukiak gehituz edo funtzionalitate zein zerbitzu berriak gehituz).

Hortaz, honako hauek dira laguntza-mota honetara bil daitezkeen egitasmoak eta multzo bakoi-terako aurreikusitako diru-laguntza kopurua:

ID1. Ingurune digitalerako euskarazko egitasmo berriak sortzea (593.500 euro).

ID2. Ingurune digitalean lehen-dik abian dauden euskarazko egitasmoak eguneratzea, edukiak zein funtzionalitate berriak gehituz (214.000 euro).

2.– Nolanahi ere, aurreko puntuan zehaztutakoari dagokionez, honako egitasmo hauek ez dute sarbiderik izango eta, ondorioz, kanpoan utziko dira:

a) Alderdi politikoen, hauteskundeetarako koalizioen eta sindikatuen egitasmoak.

b) Egitasmo pertsonalak.

c) Egitasmo puntualak (gertakizun, ekitaldi edo jardunaldi jakin baten inguruan propio antolatutakoak, euskararekin lotura zuzena izanik ere).

d) Demoak eta prototipoak.

e) Produktu eta helburu zabalago baten osagai diren egitasmoak, baldin eta publikoarentzat erabilgarriak ez badira.

f) Softwarea sortzea, lokalizatzea edo eguneratzea helburu duten egitasmoak.

g) Enpresa edo erakunde baten barne erabilerarako egindako intranetak eta antzeko produktuak.

h) Egitasmo korporatiboak (enpresa, elkarte, edo edozein entitate ezagutzera emateko egitasmoak).

i) Online dendak edo salerosketarako plataformak.

j) 2016-2018 epealdirako HED deialdian (euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak) diru-laguntza eskuratu duten webguneak.

k) Erakunde publikoen erabilerarako sortutako egitasmoak.

l) Giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatzen ez dituzten egitasmoak eta, ondorioz, herritarrei iraingarri gerta dakiekeen ikur edo elementuak jasotzen dituztenak; halaber, herritarren duintasunari kalte egiten dieten edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikur edo elementuak jasotzen dituztenak.

m) Sexu bien arteko trataera-berdintasuna bermatzen ez duten egitasmoak.

n) Laguntza-mota honetan sarbiderik izan arren, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2018an diruz lagundutako egitasmoak.

ñ) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basquek hizkuntza normalkuntzarako sinatutako hitzarmen markoaren 2018ko diru-laguntzen deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten egitasmoak.

o) Araubide orokorretan zein berezikoetan erabiltzekoak izanik, ikasketa-plan edo curriculumarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten ikasmaterialek inprimatu, ikus-entzunezko edo elektronikoak gauzatzeko asmoz aurreikusitako egitasmoak.

p) Euskararen kalitatea bermatzen ez duten egitasmoetan egindako berrikuntza edo horietan kokatuko diren euskarazko eduki berriak. Hau da, lehendik abian dagoen egitasmoan berrikuntzak egin behar direnean, edo euskarazko eduki berriak sartu behar direnean, ezinbestekoa izango da egitasmo horrek euskararen kalitatea bermatzea, Euskaltzaindiak emandako arau eta gomen-dioak aintzakotzat hartuz eta betez.

3. artikulua.– Programak edo jarduerak egikaritzeko epea.

Laguntza deialdi honek 2018an burutuko diren egitasmoak baino ez ditu gogoan hartuko. Hori dela eta, deialdi honetara biltzen diren egitasmoak gauzatzearen ondorioz eskaini, eman edo gizarteratu beharreko jardunak, zerbitzuak eta produktuak 2018ko abenduaren 31 baino lehen eskaini, eman eta gizarteratuko dira.

4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Enpresa guztiak, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta legalki erata badaude indarrean dagoen araudiaren arabera, betiere agindu honen 2. artikuluan aipaturiko egitasmoak burutzen badituzte.

Diru-laguntza deialdi honen ondorioei dagokienez, honako hau da enpresaren definizioa: jarduera ekonomikoa gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridiko pribatua.

2.– Hala ere, deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

– Krisian dauden enpresak, aintzat harturik horretarako zer definizio ematen duten krisian dauden enpresa ez-finantzarioak berreskuratu eta berregituratzeko Zuzentzauek (EBAO, 2014/C 249/01).

– Berreskuratze agindu gauzatu gabeko baten mende dauden enpresak edo erakundeak, Europar Batasunaren Batzordeak aurrez emandako ebazpen baten bitartez adierazi denean laguntza bat legez kontrakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela.

Horiez gain, honako hauek:

– Bere kapital gehiena publikoa duten, edo fundazio-ondarea edo gobernu –edo zuzendaritza–partaidetza nagusiki publikoa duten entitate pribatuak.

5. artikulua.– Enpresa eskatzaileen baldintzak eta betebeharrak.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 50. artikuluan zehaztutako betebeharrak:

- a) Jarduera aurrera eramatea edo diru-laguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.
- b) Diru-laguntza eman duen erakundearen aurrean justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak betetzen direla eta jarduera bera aurrera eramango dela.
- c) Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztatzeen menpe eta Ekonomi Kontroleko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzaren menpe egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren laguntza edo diru-laguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien menpe ere egon beharko du.
- d) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea hasierako laguntza eman duen erakundeari.
- e) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea laguntza eman duen erakundeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak eman eta, kasua balitz, ordaindu ahal izateko.

2.– Horiez gain, deialdi honetarako hauek:

2.1.– Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu zigor eta administrazioaren arloan diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik dutenak, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta daudenak ere. Era berean, ezin izango da sexu arrazoiengatik diskriminaziorik egitearren zigortutakoa izan, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera.

2.2.– Enpresak egunean edukitzea indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, arauz zehaztu den bezala.

2.3.– Enpresak egunean edukitzea indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, arauz zehaztu den bezala.

2.4.– Diru-laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzak betetzea.

2.5.– Enpresa, burutu nahi den egitasmoa burutu ahal izateko jabego intelektualari loturiko elementuen ustiapen-eskubideen jabe izatea.

6. artikulua.– Egitasmoen baldintza bereziak.

Laguntza-mota honetan parte hartu ahal izateko honako baldintza berezi hauek bete behar dira:

1.– Deialdiaren epealdia bete aurretik, hau da, 2018ko abenduaren 31rako, diruz lagundutako egitasmoek guztiz bukatuta eta publikoari zabalik egon beharko dute, edozeinek erabiltzeko moduan. Era berean, merkaturatzeko diren egitasmoak merkatuan eskuragarri egon behar dute ezinbestez 2018ko abenduaren 31rako. Osorik bukatutzat jo ezin diren egitasmoei edo publikoari zabalik edo merkatuan eskuragarri ez dauden egitasmoei emandako laguntza osoa erreklamatu zaio diru-laguntzaren onuradunari, eta ez da betetako zatiaren arabera likidaziorik bideratuko. Beraz, 23. artikuluari jarraikiz, diru-laguntza itzultzeko espedientea bideratuko da.

2.– Diruz lagundutako egitasmoak eta produktu horien bidez zabaldutako eduki guztiak (argazkiak, idatzizko testua, ikus-entzunezkoak, podcastak...) zer lizentziaren menpe dauden argi azaldu beharko da. Egitasmo bakoitzean, lege-oharretarako atalean sartuko da zehaztapena, eta testua aldeztetik bidaliko zaio Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari, eskabidearekin batera.

3.– Aurkezten diren webguneei dagokienez, diru-laguntza jasotzen duten egitasmo berriek ezinbestez egon beharko dute gailu mugikorretarako egokituta.

4.– Euskarazko webguneei etengabe eguneratzeko plangintza eduki beharko dute. Era berean, aurkeztutako egitasmo guztiek ezagutarazteko plan zehatza izan beharko dute, hala nola, Internet bidezko sustapen plana. Bestalde, euskarazko eduki berrien kasuan, horiek zabaltzeko plangintza zehaztuko da.

5.– Webguneei bisita eta bisitariak neurtzeko neurgailua eduki behar dute. Neurgailuak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Argi bereizita agertu beharko dira gutxienez honako datu hauek: bisitak («saioak») eta bisitariak («erabiltzaileak»), hilabeteka eta urteka.

- Hizkuntza bat baino gehiagoko webguneeetan, argi bereizita agertu beharko dira hizkuntza bakoitzean izandako bisitak («saioak») eta bisitariak («erabiltzaileak»). Gainera, webguneko hizkuntza bakoitzeko edukia URL bidez bereizteko aukera izan beharko da (ID1 multzoko kasuan, egitasmoa abian jartzen denetik aurrera; ID2 multzoko egitasmoetan, gutxienez diru-laguntza eskabidea egiten den egunetik aurrera).

Enpresa eskatzaileak datu horiek jasotzen dituen urteko txostena aurkeztuko dio Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari, eta neurgailurako sarbidea ere eman beharko dio.

6.– Egitasmo bakar bati lotutako proiektuak eskabide bakar batean aurkeztu beharko dira, hau da, ezin izango dira zatitu edo banatu.

7.– Edukiek (idatzizko albisteak, erreportajeak, audioak, bideoak...) argitaratze-data izan beharko dute, edozeinek edozein unetan ikusteko moduan (ID1 multzoko kasuan, egitasmoa abian jartzen denetik aurrera; ID2 multzoko egitasmoetan, gutxienez diru-laguntza eskabidea egiten den egunetik aurrera).

## 7. artikulua.– Izapidetzea.

1.– Prozeduraren izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta egiteko honako bide hauek izango dituzte interesdunek:

- Jarduera ekonomikoa garatzen duten pertsona fisikoek bide elektronikoa zein bide presentziala erabili ahal izango dituzte. Diru-laguntzaren eskabidea eta dokumentazioa aurkezterakoan bide bat erabiltzeak, izapidetze presentzialak edo elektronikoak, ez du prozeduraren hurrengo pausoetan bide bera erabiltzera behartzen, eta edozein unetan alda daiteke batetik bestera.

- Pertsona juridiko pribatuek bide elektronikoa erabili beharko dute nahitaez.

2.– Eskabide elektronikoaren ondorengo izapideak honako guztiak honen bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

3.– Eskabideak, ardurapeko adierazpenak, zuriaketak eta ereduengaineko zehaztapenak nola izapidetu, izapidetze presentzialaren zein elektronikoen bidez, [euskadi.eus-ekogune elektronikohonetan](https://www.euskadi.eus/egonkizak/euskarazko_ikerketa_koordinazioa) dago eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2018/euskara\\_ingurune\\_digitalan/eu/](https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2018/euskara_ingurune_digitalan/eu/)

4.– Jakinarazpena paperean egin nahiz bitarteko elektronikoz egin, administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, eta, abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela dagokion administrazio edo organismoaren egoitza elektronikoa edo eman duen helbide elektronikoa bakarrean. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

8. artikulua.– Enpresa eskatzailearen betekizun jakin batzuk egiaztatzea.

1.– Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa berez egiaztatuko du organo kudeatzaileak, bai eta jarduera ekonomikoren bat garatzen dutela ere, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina aplikatuz. Estatu Espainiarreko Ogasunean zergak ordaintzen dituztenekin berdin jokatu da.

Helbide fiskala Estatu Espainiarretik kanpo dutenek agiri guztiak (zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, eta jarduera ekonomikoren bat garatzen dutela egiaztatzen duten dokumentuak) aurkeztu beharko dituzte.

2.– Enpresak ez ditu aurkeztu behar izango legalki eratuta dagoela eta dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Erregistroan dagoen fundazioa, kooperatiba edo elkarte bada. Izan ere, kasu honetan Administrazioak ofizios egiaztatu ahal izango du Erregistroan dagoela, eta nahikoa izango da eskatzaileak hori adieraztea eskabide-orrian.

Baldin eta enpresari buruzko dokumentazioa Administrazio honetan lehenago ere aurkeztu izan bada eta indarrean jarraitzen badu, eskatzaileak ez du berriro aurkeztu behar izango. Edozein modutan ere, eskatzaileak eskabide-orrian adierazi beharko du dokumentazio hori noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea betez, agindu honen 5. artikuluan zehaztutako betebeharrak egiaztatuko dira eskabidean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea, dokumentazioa eta tokiak.

1.– Eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza-deialdi honetan parte hartu nahi duen orok gehienez ere hiru egitasmo aurkezteko aukera izango du. Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabidea egiterakoan, honako hauek egiaztatu beharko ditu eskatzaileak:

Pertsona juridiko pribatuek:

– Erakundea legez eratuta edo dagokion erregistroan inskribatuta dagoela.

– Ordezkaritza-ahalordea.

Enpresaburu indibidual edo autonomoek:

– Autonomoen erregimenean alta emanda dagoela.

Horiez gain, honako formulario hauek bete beharko ditu:

- Eskabide-orria.
- Egitasmoari buruzko dokumentazioa:
- Egitasmoaren deskripzioa.
- Egitasmoaren aurrekontua.
- Edukien lizentzia eta softwarearen eskuragarritasunari buruzko legezko testua.

Eta, azkenik, egitasmoari dagokionez, multzo bakoitzari dagokion bestelako dokumentazioa ere aurkeztu beharko du eskatzaileak:

- ID1: prototipoa, eta edukien lagina.
- ID2: aurreko urteko euskarazko bisita-kopuruari buruzko txostena edo grafikoak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruko zehaztapenak [https://euskadi.eus/diru\\_laguntza/-/2018/euskara\\_ingurune\\_digitalearn/eu/](https://euskadi.eus/diru_laguntza/-/2018/euskara_ingurune_digitalearn/eu/) helbidean daude jasota.

### 3.– Eskabideak aurkezteko moduak eta tokiak.

Pertsona juridikoek bide elektronikoa erabili beharko dute nahitaez eskabideak aurkezteko.

Jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoek, berriz, eskabideak bi eratara aurkez ditzakete:

- eskabide elektronikoaren bidez edo
- eskabide presentzialaren bidez.

3.1.– Eskabide elektronikoa honako gune honen bitartez egingo da: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

3.2.– Pertsona fisikoa izanik, eskabide presentziala aukeratuz gero, honako leku hauetan aurkez daiteke:

– Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Lurralde Unitatea, Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao.

– Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Lurralde Unitatea, Andia kalea 13, 20008 Donostia.

– Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan, EAEko erregistro laguntzaileetan (Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

– Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

– Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

3.3.– Pertsona fisikoa izanik, postaz egin nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko dira eskabide-orria eta agiriak: Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza, Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Bide horri ekitekotan, eskabide-orria kartazal irekian

aurkeztu beharko da posta-bulegoan, posta-langileak, ziurtapena egin baino lehen, data eta zigu-lua jar ditzan eskabide-orrian bertan.

4.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntzan, euskaraz edo gaztelaniaz, aurkez ditzakete eskabideak eta haiei lotutako dokumentazioa. Halaber, diru-laguntza eskabidearen ondoriozko jardunetan eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean eginiko akatsen zuzenketa.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan (enpresa eskatzaileak diru-laguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen dituela adierazten dutenak) zerbait falta dela edo forma akatsak daudela, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez. Halaber, ikusten bada egitasmoa baloratzeko ezinbestekoak diren egitasmoaren deskribapena eta/edo aurrekontua ez d(ir)ela aurkezten edo akatsak daudela, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko; epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidea onartu onartuko da baina gerta daiteke eskatzaileak dagokion izapidea egiteko eskubi-dea galtzea.

Pertsona juridikoren batek eskabide presentziala egiten badu, eskabide elektronikoa egiteko eskatuko zaio. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskabidearen aurkezpen-datatzat.

11. artikulua.– Diru-laguntzaren nondik norakoa, zertarakoa eta zenbatekoa.

1.– Laguntza-mota honen bitartez egitasmoen gauzatze-lanei zuzen-zuzenean egotzitako gastuei partzialki aurre egingo zaie.

Honako gastu hauek kanpoan geldituko dira:

- a) Inbertsioetarako gastuak.
- b) Aurretiaz euskara ez den beste hizkuntza batean garatutako webguneari edo aplikazioari dagozkion gastuak.
- c) Sortzen diren egitasmoak euskaraz gain beste hizkuntza batean edo gehiagotan garatzeko asmoa baldin badago, aurkezten den egitasmoari kostuaren parte bat bakarrik egotziko zaio, euskarazko bertsioari dagokion kostua hain zuzen ere.
- d) Halaber, dagoeneko sortutako edukia sarean ipintzeko eskatzen denean diru-laguntza, ego-kitzapen kostua soilik hartuko da kontuan.
- e) Ez dira gastutzat hartuko laguntza-deialdira aurkeztutako egitasmoaren gauzatzeari egozgarri ez zaizkion enpresa eskatzailearen jardun orokorreko gastuak.
- f) Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokion gastua ez da kontuan hartuko. Hala ere, BEZa berreskuratu ezin duten erakunde onuradunen kasuan, gastutzat hartuko da, eta Administrazioak ofizioz baieztatuko du hori.

2.– Gastu-aurrekontuari dagokionez, egitasmo bakoitzaren gastu-aurrekontua ezin izango da 50.000 euro baino gehiagokoa izan.



Gastu-aurrekontuak honako atal hauek izango ditu:

a) Langile-gastuak. Honen barruan sartzen dira egitasmoa egiteko behar izan diren giza baliabideak, bai enpresa barrukoak (soldata gordinak, zergak kontuan hartu gabe, eta legez beharrezkoak diren kotizazioak), bai eta kanpokoak ere (kanpoko zerbitzuen kontratazioa). Atal honetarako honako muga hauek gordeko dira:

– Edukietarako, hau da, edukien sorkuntzarako nahiz kudeaketarako gehienez ere 20.000 euroko gastua hartuko da kontuan («Aurrekontua» izeneko formularioaren A4 atala).

– Lokalizazioak egin behar direnean, itzulpenetarako gehienez ere 6.000 euroko gastua hartuko da kontuan («Aurrekontua» izeneko formularioaren A2 atala).

– Egitasmoaren kudeaketarako gastuek ezin izango dute gainditu gainontzeko langile-gastuen guztirakoaren % 5a («Aurrekontua» izeneko formularioaren A6 atala).

b) Bestelako gastuak (funtzionamendu-gastuak barne). Atal honetan, gehienez ere, langile-gastuen % 5 hartuko da kontuan, eta bestelako gastu horiek zein kontzepturi dagozkion zehaztuko da.

3.– Egitasmo orok gutxieneko finantzaketa-maila propioa izan behar du ezinbestean, % 40koa hain zuzen ere. Ondorioz, finantzaketa-maila horretara iristen ez den egitasmoa lehiaketatik kanpo utziko da.

4.– Aurreko puntuan aipaturiko finantzaketa propioa honako diru-sarrera hauez osatuta egongo da:

a) Entitate-eskatzailearen diru-ekarpenak.

b) Zerbitzu-salmentatik eskuratutakoak.

c) Produktu-salmentatik eskuratutakoak.

d) Publizitatetik eskuratutakoak.

e) Entitate pribatuetatik jasotakoak.

5.– Defizitarioak diren egitasmoei bakarrik eman ahal izango zaie diru-laguntza. Ondorioz, defizitarioak ez diren egitasmoak lehiaketatik kanpo utziko dira. Agindu honen ondorioetarako egitasmo bat defizitarioa izango da eskatzailearen ekarpena eta deialdi honetatik kanpoko beste finantzazio publikoa kontuan izanda, gastuen % 100 estaltzen ez denean.

6.– Egitasmo bakoitzari esleitutako diru-laguntza, ez da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatutakoa baino handiagoa izango. Horrez gain, egitasmo bakoitzak gehienez 20.000 euroko diru-laguntza jaso ahal izango du.

Era berean, jaso beharreko gutxieneko kopuru bat ere ezarri da egitasmoko; horrela, 2.000 euro baino gutxiagoko esleipenak bertan behera geratuko dira.

7.– Enpresa bakoitzak ezingo ditu deialdi honetara hiru eskabide baino gehiago aurkeztu. Eskabide bakoitzeko egitasmo bakarra aurkeztuko da.

8.– Diru-laguntza bateragarria da edozein erakunde publiko zein pribatuk xede berberaz eman ditzakeenekin, betiere, lagundutako egitasmoak gain-finantzaketarik ez badu. Agindu honen epe-barrutia amaitu eta 22. artikuluan finkatutako justifikazioari ekin eta gero gain-finantzaketarik gertatu dela ikusten bada, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, betiere 23. artikuluan zehaztutako bideari jarraituz. Murrizketa hori gain-finantzaketaren bestekoa izango da.

## 12. artikulua.– Diru-laguntzaren kudeatzailea.

Deialdi honen kudeaketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari dagokio.

## 13. artikulua.– Esleipen-prozedura.

1.– Zeregin horretarako berariaz eraturako Balorazio-batzordeak eskabideei buruzko ebazpen-proposamena landu eta diruzko zenbatekoak finkatuko ditu. Horretarako, lehendabizi, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak aurkeztutako egitasmoen dokumentazioa aztertuko du, eta dokumentazio hori prestatuko du Balorazio-batzordeak egitasmoen balorazioa egiteko. Hortaz, honako urrats hauek emango ditu Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak:

1.1.– Deialdian finkaturiko baldintzak bete ez izateagatik baztertuak izan diren eskabideen zerrenda eta horietako bakoitza baztertu izanaren zioak prestatuko ditu, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak horiei buruzko Ebazpenak eman dezan. Ebazpenok interesdunei jakinaraziko zaizkie.

1.2.– Adierazitako aurrekontuari eta eskatutako diru-laguntzari dagokienez.

a) «Aurrekontua» izeneko formularioan adierazitako gastu-aurrekontua eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa hartuko ditu abiapuntutzat.

b) 11. artikuluan finkatutakoaren haritik, honako hau ikusiko da: laguntza-deialdira aurkeztutako egitasmoaren gauzatzeari zuzenean eta bakarrik egozgarri zaizkion gastuak baino ez daudela jasota adierazitako gastu-aurrekontuan. Ez dira gastutzat hartuko laguntza-deialdira aurkeztutako egitasmoaren gauzatzeari egozgarri ez zaizkion enpresa eskatzailearen jardun orokorreko gastuak.

c) Aurreko puntuan (b) adierazitakoa aintzat hartuta, eskatzaileak adierazitako gastu-aurrekontuari aldaketaren bat egin behar izatekotan, beste horrenbesteko aldaketa egingo zaie adierazitako sarrera-aurrekontuan zehaztutako finantzaketa propioaren kopuruari eta eskatutako diru-laguntzari, beti ere gastu-aurrekontua aldatu den proportzio berean. Modu horretan, aurrekontu onartua finkatuko da. Horrelakoetan, diru-laguntza kalkulatzeko orduan, aurrekontu onartua eta eskatutako diru-laguntza onartua hartuko dira erreferentzia-oinarritzat, baita eskabide-orrian zehaztutako finantzaketa-maila propioa ere.

1.3.– Puntuei dagokienez.

a) Esleipen-prozedurari ekin aurretik, balorazio-fasera pasatutako egitasmoak baloratuko ditu Balorazio-batzordeak, agindu honen 14. artikuluan finkatutako irizpideen arabera.

b) Egitasmoek, aurrera egitekotan, jaso litezkeen puntuetatik hirurogeita hamar (70) puntu edo hortik gora lortu beharko dituzte. Ondorioz, esandako gutxieneko puntuazio horretatik beherako puntuazioa lortzen duten egitasmoek ez dute diru-laguntzaren banaketan sarterik izango eta, ondorioz, ez dute diru-laguntzarik hartuko.

c) Puntu horiek onartutako gastu-aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko dute. Estalpen-indize hori Balorazio-batzordeak zehaztuko du, betiere puntu-tarteak finkatu eta gero.

2.– Egitasmo bakoitzari esleitu beharreko laguntza-kopurua zehazteko orduan, 11. artikuluan finkatutako mugak gordeko dira.

3.– Ebazpen-proposamena lantzerakoan, Balorazio-batzordeak, dauden diru-baliabideak kontuan izanik, ID1 eta ID2 multzoetako batean diru soberakina izan eta horietako besteren batean diru-falta balego, diru-soberakinen birbanaketa egitea proposatuko du eta horrela jasoko da Hitzkuntza Politikarako sailburuordeari egingo dion proposamenean. Birbanaketa egiterakoan, multzo horien beharrak izango dira gogoan. Horretarako, multzo bakoitzean eskatutakoaren eta esleitutakoaren arteko aldeak hartuko dira aintzakotzat, horiek estaltzeko beharrezkoak diren formulak erabiliz.

14.– artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.– Agindu honen babesean emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira, ezarritako mugak errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz. Ebazpen-proposamena landu eta diruzko zenbatekoak finkatzeko orduan, zeregin horretarako berariaz eraturako Balorazio-batzordeak honako irizpide eta balio hauek izango ditu kontuan:

Bereziki lagunduko dira aisialdirako eta entretenimendurako egitasmoak, batez ere umeei zein gazteei begira egindakoak. Halaber, lehenetsitakoak izango dute eduki propioz hornitutakoek. Hona hemen irizpide nagusiak:

a) Egitasmoaren kalitatea eta egokitasuna: gehienez ere berrogeita hamar (50) puntu.

Egitasmoaren kalitatea eta egokitasuna baloratzeko honako aldagai hauek hartuko dira kontuan:

- Berrikuntza.
- Erabilgarritasuna.
- Diseinua.
- Edukiak (propioak izatea, konplexutasuna, kopurua, ezaugarriak).
- Eguneratzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzeko baliabideak.
- Produktuaren merkaturatzea edo zabalkundea.

b) Euskararen erabilera Ingurune Digitalean bultzatzeko eragingarritasuna: gehienez ere berrogei puntu (40).

Eragingarritasuna neurtzeko hauek izango dira baloratuko diren aldagaiak:

– Gaiaren izaera; aisialdiko eta entretenimendurako egitasmoak lehenetsiko dira, batez ere umeei eta gazteei begira egindakoak.

– Irisgarritasuna / komunitate izaera:

– Erabiltzaile kopurua (bisitak eta bisitariak) jadanik abian diren egitasmoetan.

– Egitasmo berrietan kontuan hartuko da publiko potentzialaren izaera eta dimentsioa.

– Euskal komunitatearen izaera: «.eus» domeinua izatea.

c) Edukien lizentzia eta softwarearen eskuragarritasuna: gehienez ere hamar puntu (10).

Kodea eta edukia zabaldu, ikusi, aztertu, aldatu eta komertzializatzeko aukera dagoen ala ez neurtuko da.

### 15. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, berariazko balorazio-batzorde bat osatuko da.

2.– Balorazio-batzordeak honako kide hauek izango ditu:

a) Josune Zabala Alberdi, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena.

b) Estibaliz Alkorta Barragan, Euskara Sustatzeko zuzendaria. Ordezkoa Joseba Lozano Santos, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.

c) Ane Crespo Calvo, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako EBPNren jarraitpenerako arduraduna. Ordezkoa, Edurne Ramon Olano, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna.

d) Araceli Diaz de Lezana Fernandez de Gamarra, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna. Ordezkoa, Maitane Azkue Zaldua, Informatika Zerbitzuen koordinatzailea.

e) Elene Etxezarreta Etxeberria, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria. Honek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik. Ordezkoa Jone Aboitiz Legarra, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria.

3.– Egitasmoak baloratzeko, Balorazio-batzordeak iritzia eskatu ahal izango die Administrazioetik kanpo gai hauetan adituak direnei.

4.– Balorazio-batzordeak, laguntza-mota honetan finkaturiko irizpideak eta mugak kontuan izanik, ebazpen-proposamena landuko du eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeari aurkeztuko dio, honek, zuzen eta bidezkoa joz gero, behin betiko ebazpena har dezan. Aipaturiko proposamenak honako atal hauek izango ditu gutxienez:

a) Diruz lagundutako egitasmoak; onartutako gastu-aurrekontua; lortutako puntuak, osotara eta atalkakoa; eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

b) Gutxieneko puntuak lortu ez izateagatik diru-laguntzarik gabe utzitako egitasmoak eta horiek lortutako puntuazioa, osotara eta atalkakoa.

### 16. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordearen proposamena ikusita, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak esleitzeko ebazpena emango du. Ebazpen hori, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik sei hilabeteko epean interesdunei jakinaraziko die.

2.– Diruz lagundutako egitasmoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da bai eta Eusko Jaurlaritzako webgunean ere ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) herritar orok jakin dezan. Zerrenda horretan zehaztuko da diruz lagundutako egitasmo bakoitzak jasoko duen diru-laguntzaren zenbatekoa.

3.– Sei hilabeteko epea amaitu eta interesdunak inolako jakinarazpenik jaso ez badu, eskabidea gaitzetsizat joko da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Laguntza-eskatzaileraren bat hartutako ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, eskatzaile horrek aukera izango du Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko, ebazpena berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

17. artikulua.– Diru-laguntzaren onarpena.

1.– Diru-laguntzaren onuradunak esleitutako diru-laguntza onartu egin behar du. Ondorioz, diru-laguntza esleitu zaiola adieraziz Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak bidalitako jakinarazpena jaso eta hamar (10) egun balioduneko epean diru-laguntza onartzen duela adierazi behar dio idatziz aipatu Zuzendaritzari.

2.– Diru-laguntzaren onuradunak onarpen-agiria epe horretan aurkezten ez badu, laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

18. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) finkaturiko betebeharez gain, honako betebeharrak hauek ere izango dituzte:

- a) Diru-laguntza eskabide-orrian zehaztutako helburu zehatzerako erabili beharko dute.
- b) Eskabide-orrian aurreikusitako egitasmoa bere osotasunean gauzatu beharko dute.
- c) Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatutako informazio guztia eman beharko dute.
- d) Hizkuntzaren kalitatea bermatzea guztiz garrantzizkotzat jotzen denez gero, Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioak aintzakotzat hartu eta beteko dituzte.
- e) Indarrean dauden lege eskakizunak bete beharko dituzte jabego intelektualari, egile-eskubideei, lege-gordailuari, banaketari eta abarri dagokienez.
- f) Laguntza-gai diren egitasmoek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatu beharko dituzte. Ondorioz, egitasmo horiek ezin izango dute herritarrei iraingarri gerta dakiekeen ikur edo elementurik jaso, ezta beren duintasunari kalte egiten dieten edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikur edo elementurik ere.
- g) Adierazpen- eta informazio-askatasunari begirunea erakustea. Horretarako, nor bere deontologiako arauak beteko ditu eta, aldi berean, politika-aniztasuna eta politika-, gizarte- eta kultura-taldeei zor zaien aukera-berdintasuna bermatuko duen informazio egiazkoa eta objektiboa sustatuko du.
- h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.
- i) Laguntza-mota honen bidez diruz lagundutako egitasmo orok Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako babesaren berri adierazi beharko du egitasmoaren argitan kaleratutako euskarri guztietan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua agerrarazi behar dute. Logotipoak ikusgai egon behar du hasierako orri edo atal nagusian, ebazpena ematen den unetik gutxienez urtebeteko epean.

Halaber, diru-laguntzen araubidea ezartzen duen 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotakoak ere bete beharko dituzte.

#### 19. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Agindu honetan oinarrituz emandako diru-laguntzen ordainketak bi zatitan egingo dira, era honetara:

a) Lehenengo ordainketan diru-laguntza osoaren ehuneko hirurogeita bost (% 65) ordainduko da, diru-laguntza onartzen den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

b) Bigarren ordainketan, hala badagokio, gainerako ehuneko hogeita hamabosta (% 35) ordainduko da, diru-laguntza justifikatzeko agiri guztiak jaso eta ontzat eman ondoren. Bigarren ordainketa 2019an egingo da edozein kasutan, Eusko Jaurlaritzaren 2019ko aurrekontuen kontura.

#### 20.– artikulua.– Ebazpenaren aldaketa.

Diruz lagundutako egitasmoa eskabidean deskribatu bezala garatuko da. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen denean, diru-laguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da. Hori dela eta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak bidezko likidazio-ebazpena emango du, eta, ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa berregokituko da. Horretarako, honako dekretu honetan ezarritako prozedura aplikatuko da: 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

Nolanahi ere, aurkeztutako egitasmoa hobetzen dituzten aldaketak onartu ahal izango ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eskatzaileak egitasmoa gauzatu aurretik horretarako baimena eskatzen badu. Diru-laguntza betiere aurkeztutako egitasmoaren gainean ebatziko da eta balizko aldaketak ez du esleitutako diru-laguntza aldatuko.

#### 21. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa edozein delarik ere, diru-laguntzaren onuradun orok diruz lagundutako egitasmoaren gauzatzea justifikatu behar du, ezinbestean, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren aurrean. Justifikazioari ekiteko, diru-laguntza esleitzeko orduan erabilitako gastu-aurrekontu onartua erabiliko da.

2.– Diru-laguntzaren justifikazioa egiteko azken eguna 2019ko martxoaren 31 izango da.

3.– Pertsona fisikoa izanik, izapidetze presentziala aukeratuz gero, diru-laguntzaren justifikazioa agindu honen 9. artikuluan aipatutako lekuetan aurkez daiteke.

4.– Era berean, justifikazioak aurkezterakoan bide elektronikoak erabil ditzakete pertsona fisikoek: <https://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>. Pertsona juridiko pribatuek ezinbestean erabili beharko dute aipatutako bide hau.

#### 22. artikulua.– Justifikazioarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Aipaturiko justifikazioa justifikazio-kontu erraztuaren arabera egingo da. Justifikazio-kontu erraztuak, zinpeko aitopenen izaera izango duenak, honako informazio hau jasoko du:

a) Burututako jardunari eta emaitzei buruzko txostena (Emaitzei buruzko txostena). Beste datu batzuen artean, honako hauek jasoko dira bertan:

– Egitasmoaren helbide elektronikoa zehaztuko da Emaitzei buruzko txostena izeneko formularioan (aplikazioen kasuan, dagokion banaketa-plataforman aplikazioa eskuratzeko lotura).

– Zabalkundea: diruz lagundutako egitasmoa ezagutarazteko egindakoari buruzko azalpen zehatza idatzi beharko da, eta azalpenari laguntzeko pantaila inprimatuak bidaliko dira, pdf dokumentu batean edo beste euskarriren batean.

– Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesaren (ikus agindu honen 18. artikuluan xedatutakoa): Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako babesaren berri adierazi beharko da egitasmoaren argitan kaleratutako euskarri guztietan, eta babes hori non eta nola agertzen den azaldu beharko da E-mail bidez buruzko txostena izeneko formularioan.

b) Diruz lagundutako egitasmoari dagozkion gastuen zerrenda sailkatua (Gastuen zerrenda eta balantzea).

c) Diruz lagundutako egitasmoari dagokion behin betiko balantze ekonomikoa (Gastuen zerrenda eta balantzea).

2.– Diruz lagundutako egitasmoen berri emango da Euskadi.eus atariaren bidez. Horretarako, egitasmoa identifikatzeko irudia aurkeztuko da euskarri elektronikoan.

3.– Diru-laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri eskatuko dio onuradunari, diru-laguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko. Horretarako, unitate moneta laginketa teknika erabiliko du.

4.– Justifikazioari dagokionez, anomalia edo irregulartasunen bat ikusiz gero, hamar egun balio-duneko epea (10) emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Emandako epean akatsa zuzendu ez bada, agindu honen 20. eta 23. artikuluetan finkatutakoari ekingo zaio automatikoki.

5.– Eskabidea aurkezteko zein justifikazioak egiteko jarraibideak eta eredu normalizatuak euskadi.eus egoitza elektronikoan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus>

23. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzultzeko ebazpena.

1.– Betebeharrak bete gabetzat joko dira honako kasu hauetan:

a) Jasotako diru-laguntza, osorik zein zatika, agindu honetan zehaztutakoez beste jardueretarako erabiltzea.

b) Agindu honen 18. artikuluan zehaztutako betebeharrak ez betetzea.

c) Hala badagokio, likidazio-ebazpenak zehaztutako kopurua ez itzultzea horretarako emandako epean.

d) Diru-laguntza araudiarekin zerikusia duen edozein xedapenetan, nahitaezkozat jotzen diren gainerako egitekoak ez betetzea.

2.– Ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako dirua eta horren legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

Agindu honen pentzutan emandako diru-laguntzaren onuradunak eman eta eskuratutako zenbatekoa eta legez aplikagarriak izan daitezkeen interesak itzuli egin beharko ditu, aurreko pasartean jasotakoak gertatuz gero edo, oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan edo agindu honetan ezartzen diren eginbeharrak betetzen ez badira. Aurreko hori Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta

eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da.

#### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honen 2. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean beste programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Aipatutakoaren berri Hizkuntza Politika-rako sailburuordearen ebazpen baten bitartez eman beharko da.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak jakinarazten du deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, eskabidean eta formularioetan jasotakoak, «Koordinazioa: laguntzak eta diru-laguntzak» izeneko fitxategian sartuko direla. Fitxategi hori agindu honek arautzen du: 2015eko abenduaren 2ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzekoa (hizkuntza-politikaren, kulturaren eta gizarte-hedabideen arloak), eta gaur egun Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza da fitxategi honen titularra. Fitxategiak diru-laguntza deialdi hau kudeatzea du helburu eta deialdi honekin zerikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea ere bai. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarri dira. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz dauden araei jarraikiz, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko aukera, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo dezake (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Laguntza-programa honi Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua aplikatuko zaio, zeinaren bidez adierazten baita laguntza-kategoria zehatz batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla, Kategorien arabera Salbuespenen Tratatu 651/2014



Erregelamendu Orokorraren 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz (EBAO L187, 2014ko ekainaren 26koa).

#### AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 28a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.